

## **EUSKALTZAIN OHOREZKO BERRIAK IZENDATZEA**

*Donostia, 1993.06.26*

- Bernardo Estornes Lasa
- Jean-Baptiste Etcheberri
- Carlos Santamaria Ansa
- Martin Ugalde Orradre
- Augustin Zubikarai Bedialauneta



## OHOREZKO EUSKALTZAINA 1993

Donostia, 1993.06.26

Martin Ugalde

Ni 1969an Venezuelatik etorri nintzenean Euskaltzaindia eta *Argia* izan ziren nire babesleku.

Hemen sentitu nintzen Herrian.

Euskaltzaindia ez zen orduan hemen, sasoi eder honetan, biltzen, baizik eta hor goien trastez bete zegoen ganbaran! Hala zebilen euskara! Eta eskertu egin behar, gainera, hori egiten uzten zigutelako. Gure artean bazen istilurik orduan ere, euskara batua dela eta. Don Manuel Lekuona, eta Aita Villasante etortzen zaizkit gogora orain Mitxelenarekin batera, besteen artean.

Kazetaria naizenez ofizioz, *Zeruko Argian* egin nuen garai hartan Euskara Batuaren arazo hura apur bat arrazointzeko ahalegintxoia bi alderdietako buru batzuei elkarrizketak eginez, baina ez zen aski izan, noski, eta ni neu ere eraman ninduen uholdeak! Halera, euskal erakundeek duten sustrai eta jokabideei esker Ikastola eta Euskaltzaindia, hizkuntzaren sustraietatik eraiki diren instituzioak, aurrera doaz, iraun dute eta iraungo dute euskaldunen bihotzetan, eta erakunde iraunkor hauen ondoan itxaropen guztiak aurrean ditugu. Gure politikako munduan iritzi batekoak et bestekoak Euskal Herria aurrean dugula, elkarlan hau bera egiteko gauza bagina!

Esker beroak Euskaltzaindiari hain konpanti onean ohorezkoko euskaltzain izendatu nauelako, euskaldun batek jaso dezakeen saririk ederrena.

Esker mila.